



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko agorrilaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko agorrilaren 3an, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, DACHAGUER Peio, GOICOCHEA Iñaki HEGUY Antton.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile.

Deialdiaren eguna : 2023ko uztailaren 28a

Afitxatze eguna : 2023ko uztailaren 28a

3. ERABAKIA: KUDEAKETA ZENTROAK PROPOSATZEN DUEN DERRIGORREZKO AURRETIKO BITARTEKARITZA MISIOAREN BAZKIDE IZATEA

(4.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari azaldu dio, esperimentazioaldi baten ondotik Pirinio Atlantikoetako Lurralde Funtzio Publikoko Kudeaketa Zentroak, Frantziako 2021eko abenduaren 22ko 2021-1729 lege-erakundearen konfiantzaren aldeko legeak baimendurik, aurretiko bitartekaritza misio nahitaezkoa proposatzen duela.

Kudeaketa zentroek misio hori derrigorrez proposatu behar dute, baina lurralde erakundeek horretan bazkide izatea ala ez hauta dezakete.

Misio horrekin, PAUEko Administrazio Auzitegira jo aitzin auzibide guztientzat nahitaezko bitartekaritza fase bat eskaintzen du, norbanakoen administrazio erabaki hauentzat:

- Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 712-1 artikuluan biltzen diren administrazioak norbanakoen lantsariei buruz hartu erabaki ezkorak;
- 1988ko otsailaren 25eko frantses dekretuko 15, 17, 18 eta 35-2 artikuluetan biltzen diren, kanpo zerbitzaldi eta lan-utzialdien errefusatzeari, eta kontratupetuei oporrak ez onartzea;
- Kanpo zerbitzaldi, lan-utzialdi edo gurasotasun-oporraldi, nola aitzinekoan aipatzen den kontratupetuei oporraldi baten ondotik lan-postuan berriz hartzeko administrazioak norbanakoei eman erabaki ezkorak;

- Barne promozio baten bidez klasez, graduz eta postuz igo den langileei administrazioak hartu norbanako erabaki ezkorrak;
- Bizi osoko lanbide formakuntzari buruz administrazioak hartu norbanako erabaki ezkorrak;
- Funtzio publikoaren Frantziako kode orokorreko L. 131-8 eta L. 131-10 artikuluetan biltzen diren, administrazio-enplegatzailerik publikoek langile elbarrituen kaltetan hartu erabaki ezkorrak;
- 1985eko irailaren 30eko frantses dekretuak biltzen dituen baldintzen arabera, beren funtzioak betetzeko ezintasunean diren funtzionarioen lan baldintzen kaltetan administrazioak hartu norbanako erabaki ezkorrak.

Gatazken konpontzeko manera alternatibo honi esker, legezkotasun eta administrazio zuzen baten printzipioak urratu gabe, ezadostasunak malgutasunez, fiteago eta gastu gutiagorekin konpondu daitezke.

Bitartekaritza, Kudeaketa Zentroko langile bereziki formatu eta ahaldunek burutuko dute, bitartekaritzaren printzipio nagusiak bermatuz: independentzia, neutraltasuna, inpartzialitatea eta konfidentzialtasuna.

Zerbitzu berri hori baliatu ahal izateko, zeina urteko bazkidetza sarian sartua den, lurralde erakundeek erabakia hartu behar dute

Honako erabakiak ez du deusetara behartzen, baina sekula gatazka bat izango balitz, auzitegira jo aitzin, elkarrizketa fase honek elkar ulertzea bidera dezake, zaluago, merkeago eta gainera gatazkaren konponbide iraunkorrago batekin.

Zerbitzu horretan bazkidetza hartzeak duen interesaz jabeturik,

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik,

- ERABAKI DU, Frantziako 2021eko abenduaren 22ko 2021-1729 lege-erakundearen konfiantzaren aldeko legeak biltzen duen aurretiko bitartekaritza misio nahitaezkoaren kide izatea.

- BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, erantsia den bazkidetza hitzarmenaren izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 11

Balizko boz kopurua : 11

ALDE : 11

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko agorrilaren 3an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/08/11n publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/08/11n.